

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Deialdia eta oinarri espezifikoak, administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala eta igeltseroen lanbide-klasean (c2 taldea) cod126 kodeko igeltsero-lanpostua betetzeko barne-promozio eta lehiaketa-oposizio bidez. 2020ko LEP.

Alkate jaunak Alkatetzaren 3524/2023 Dekretua eman du, 2023ko urriaren 11n. Honelaxe dio xedapen-zatiak:

«*Lehenengoa*: Oinarri hauen xede diren hautaketa-proben deialdia egitea.

Bigarrena: Oinarri espezifikoak onartzea Basauriko Udalean Administrazio Berezi-ko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Igeltseroen Lanbide Klasean (C2 taldea) COD126 kodeko igeltsero-lanpostua betetzeko barne-promozio eta lehiaketa-oposizio bidez. Ikus dekretu honen Eranskina.

Hirugarrena: Ebazpen hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta deialdiaren laburpena «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzeko agindua ematea.

Laugarrena: Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 116. artikuluari dagokionez.

Basaurin, 2023ko urriaren 19an.— Alkatea, Asier Iragorri Basaguren



OINARRI ESPEZIFIKOAK, ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZIEK AZPIESKALA ETA LANBIDE-KLASEARI (C2 TALDEA) DAGOKION «IGELTSERO» POSTUA (KODEA: COD126) BETETZEKO BARNE-PROMOZIO ETA LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ. 2020KO LEP

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Administrazio Bereziko Eskalako Zerbitzu Berezien Azpieskalako eta lanbide-klaseko igeltsero plaza bat (1) barne-promozio eta oposizio-lehiaketaren bidez hautatzea, C2 taldeari dagokion soldata, aparteko ordainsariak, hirurtekoak eta gainerako ordainsariak izanik, betiere indarrean dagoen legediaren eta Udalbatzak hartutako edo hartuko dituen erabakien arabera. Banaketa honen arabera egin da deialdia:

Kod	Lanpostua	T	HE	Prezep.	Maila	O. espezifikoa (€)
Cod126	Igeltseroa	C2	1		17	1.544,43

Deialdi honen xede den lanposturako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira, hautaketa-prozedura osoan, izendapenaren unera arte.

Lanpostuaren zereginak

Orokorrak

Erabilera eta/edo zerbitzu publikoko edo atxikitako ondasunekin lotutako tailerreko berezko lanak egitea. Bere lanak egiteko esleitutako baliabide materialak eta giza baliabideak kudeatzea. Laguntzaileek eta lan-kontratuko langileek tailerrean egindako lanak kontrolatzea eta ebaluatzea.

Berariazkoak

Udal-erakinetan, bide publikoetan, hiri-altzarietan eta saneamendu-sarean igeltsero-lanak egitea. Agindutako igeltserotza-lanak egin ahal izateko eskaerak egitea eta igeltseroek materialak eta erremintak nola erabiltzen dituzten kontrolatzea. Laguntzaileek eta lan-kontratuko langileek egindako igeltserotza-lanak gainbegiratzea. Tailerraren behar orokorrak eta espezifikoko aztertzea eta helburuak betetzean hobekuntzak izateko proposamenak egitea, funtzionamendua hobetearren. B motako ibilgailuak gidatzea eta mantentze-lan txikiak egitea, joan-etorriak egiteko eta pertsonak eta materialak garraiatzeko. Langileak hartzeko hautaketa-probak egiten laguntzea eta, oro har, goragoko kargudunek agindutako eta bere lanbidearekin lotutako lanak egitea.

Deialdi honen bidez hautaketa gainditu baina plazarik lortu ez duten izangaiek 3 urterako lan-poltsa bat osatuko dute, luzatu ahal izango den poltsa, eta aldi baterako zereginetarako deitu ahal izango zaie, edo behin-behineko edo behin betiko lanpostu hutsak betetzeko. Poltsa horrek lehentasuna izango du indarrean jarraitzen duten aurreko poltsei dagokienez.

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, legeria hau hartuko da kontuan:

- Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal Herri Administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzkoa.
- Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzuko langileen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak.



- Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testuategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituena.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.

Era berean aplikatuko dira Basauriko Udalaren Oinarri Orokorrak, uztailaren 1eko 2311/2022 Alkatetza Dekretuaren bidez onartu eta 2022ko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (141. zk.) argitaratu zirenak.

Bigarrena. — Hautagaiek bete beharreko baldintzak

Lehiaketa-oposizio honetan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Basauriko Udalean ordainsari-talde bereko (C2) edo segidako beheragoko taldeko (TP) plaza jabetzan izatea, Administrazio Bereziko Eskalan, Zerbitzu Berezietako Azpieskalan, lanbide-klasean, eta zerbitzu aktiboan edo zerbitzu bereziko egoeran egotea eta bertan karrerako funtzionario gisa bi urte beteak izatea.
- b) Eskola-graduatuaren titulua, 1. mailako lanbide-heziketako titulua edo baliokidea izatea, edo eskuratzeko moduan egotea eskabideak onartzeko epea amaitzen den egunean.
- c) Aplikatu beharreko gainerako baldintzak, indarrean dauden Oinarri Orokorretan ezarritakoak, Alkatetzaren uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretuaren bidez onartuak; baldintza horiek 2022ko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (141. zenbakia) eta Udalaren webgunean argitaratu ziren.

Deialdian parte hartu nahi dutenek baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Era berean, hautaketa-prozeduran zehar mantendu beharko dira baldintzak, izendapena egin arte.

Hirugarrena. — Eskabideak aurkeztea

Eskabideak aurkezteko epea eta modua

1. Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.
2. Hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabideak -Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) eta webgunean (www.basauri.eus) eskuragarri dagoen eredu normalizatu- Alkatetzari zuzenduko zaizkio, eta HAZn aurkeztuko dira (Kareaga Goikoa 52), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.
3. Eskabidean, hautagaiek adieraziko dute zer hizkuntzatan egin nahi dituzten oposizio-faseko ariketak (euskaraz edo gaztelaniaz) eta egokitzapenik behar duten probetan, desgaitasunen bat izanez gero.
4. Gainera, 1. hizkuntza-eskakizunaren proba egin nahi duten hautagaiek proba hori egin nahi dutela adierazi beharko dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean; bestela, ezin izango dute probarik egin.



5. Eskabidean, baloratuko diren merezimenduei buruzko datuak eta merezimen-duak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte izangaiek, merezimendu horiek baloratu ahal izateko.

6. Behin eskabideak aurkezteko epea igarota, eskabideak lotesleak izango dira eskatzaileentzat. Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatutakoak ez diren merezimen-duak ezin izango dira baloratu, ezta, epe horren barruan alegatu bai, baina oinarri hauek aurreikusitakoa ez den beste une batean justifikatzen diren merezimenduak ere, hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena izan ezik, euskara-eskakizunaren azterketa egiten den egunean egiaztatu beharko baita.

7. Parte-hartzea borondatezkoa da, eta probak egiteko berariazko baimena eman-go da eskabidean. Hautagaiek emandako datuak fitxategi batean gordeko dira, eta soil-soilik erabiliko dira hautaketa-prozeduran aurreikusitako helburuetarako. Fitxategi horren erabilera bat etorriko da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin (2018ko abenduaren 6ko BOE) eta Titulartasun Publikoko Fitxategi Pertsonalei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin.

Laugarrena. — Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, dagokion udal-organoak ebazpena emango du, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko eta epaimahai-kideak izendatzeko. Ebazpen horretan, lehenengo ariketa non eta noiz egingo den adieraziko da, eta hori guztia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta hirugarren oinarrian aipatutako helbide elektronikoan.

Zerrendatik kanpo gelditutako izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioa aurkezteko eta egotzi zaizkien hutsegiteak zuzendu edo falta diren agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaie hori egin ezean artxibatu egingo dela eskabidea, izapide gehiagorik egin gabe.

Erreklamazio-epea igarota erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da automatikoki. Erreklamaziorik aurkezten bada, baietsi edo ezetsi egingo da, behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpen berri baten bidez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta helbide elektronikoan argitaratuko dena.

Probak ez dira egingo deialdiaren azken iragarki ofiziala argitaratu eta hilabete igaro arte, eta probetarako hurrengo deialdiak Udalaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira.

Bosgarrena. — Epaimahaia

Epaimahaiak kide kopuru bakoitia izango du (bost, gutxienez), Alkatetzak izendatuak. Batek presidente-lanak egingo ditu, eta beste bat idazkaria izango da. Epaimahaiakide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik (soilik hitza). Gainera, ordezkioak izendatuko dira. Nolanahi ere, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendatutako pertsona batek egon beharko du. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendatutako pertsona bat ere izango da epaimahaiakide euskararen jakite-maila ebaluatzeko probetan.

IVAPek euskararen ezagutza-probarako izendatutako epaimahaiakidea zeregin horretan soilik arituko da, berariaz besterik ezarri ezean.

Epaimahaia teknikoa izango da batik bat, eta espezialitate-printzipioan oinarrituko da. Beraz, kide guztiek izango dute deialdiko plazak eskuratzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa, eta kideen erdiek, gutxienez, esperientzia egiaztatua izango dute bete beharreko lanpostuaren ezagutza-arlo berean. Gainera, %40koa izango da gutxienez sexu bakoitzaren ordezkaritza, beharrezkoa ez dela justifikatzen denean izan ezik.

Epaimahaiakideek uko egingo diote beren zereginari, eta horren berri emango diote organo eskudunari, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta hautagaiak



errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, lege beraren 24. artikuluan ezarritakoa-
ren arabera, aurreko artikuluan aipatutako arrazoiaren bat dagoenean.

Epaimahaiaren erabakiak hartuko dira bertaratutakoen botoen gehiengoaz, eta epai-
mahaiburuak hautsiko ditu berdinketak. Epaimahaia ezin izango da eratu, eta ezin izan-
go ditu bere zereginak bete, kideen erdiak baino gehiago ez badaude, idazkaria eta
epaimahaiburua barne. Gainera, adituak izendatzeko eskatu ahal izango dio deialdia
egin duen agintaritzari, aholkulari gisa aritu daitezen (hitza izango dute baina botorik ez);
halaber, laguntzaileak eskatu ahal izango ditu, probak egiteko eta horietan zaintza-lanak
egiteko.

Epaimahaikideren batek huts egiten duenean, gaixotzen denean edo, oro har, arrazoi
justifikaturen bat dagoenean, ordezeko bat arituko da haren ordeze. Epaimahaiburua ber-
taratu ez bada, kargua hutsik dagoelako, gaixo dagoelako edo legezko beste kausaren
bat tarteko, haren ordezekoak ordezkatzeko du, edo, bestela, hierarkia, antzintasun eta
adin handiena duen epaimahaikideak, hurrenkera horretan. Idazkariari dagokionez, ha-
ren ordezekoak ordeztuko du, aldi baterako, kargua hutsik badago, bertaratu ez bada edo
gaixo badago, edo, bestela, epaimahaiak erabakitako pertsonak.

Epaimahaiari dagokio:

- a) Prozesuaren objektibotasunaren erantzukizuna duen aldetik, deialdiaren oina-
rriak betetzen direla bermatzea eta, hala badagokio, behar diren erabakiak har-
tzea arau-hutsuneak integratzeko eta haien aplikazioan sor litezkeen kontraesa-
nak gainditzeko. Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten
badu hautagaiaren batek ez duela betetzen deialdiko baldintzaren bat, interesdu-
nak esateko duena entzun eta gero, hautagaia prozesutik kanporatzea proposa-
tuko dio dagokion organoari, hautagaiak eskabidean zer zehaztugabetasun edo
faltsukeria egin duen adieraziz.
- b) Oposizio-faseko probak eta lehiaketa-faseko merezimenduak baloratzea. Horre-
tarako, epaimahaiak dagozkion erabakiak hartuko ditu eta Basauriko Udalaren
webgunean argitaratuko dira. Interesdunek erabakiak aurkaratu ahal izango di-
tuzte, 5 egun balioduneko epean, eta epaimahaiak berak ebatziko ditu aurkara-
tze horiek.
- c) Puntuaziorik handiena lortu duen hautagaia proposatzea, eta puntuazio handie-
na lortu duena izendatzeko proposamena bideratzea Alkatetzara, deialdi honen
xede den posturako, eta deitutakoen barruan proposamen horien ondorioz hutsik
geratzen diren postuetarako.
- d) Epaimahaiak proben ordena aldatu ahal izango du, baita erabaki ere egun be-
rean bi proba edo gehiago egitea.

Epaimahaikideen zerrenda, baita ordezekoena ere, jendaurrean jarriko dira, onartuta-
koen eta baztertutakoen behin betiko zerrendarekin batera.

Seigarrena. — Hautaketa-prozesua

Oposizio-lehiaketa sistema erabiliko da.

Oposizio-fasea

Lehen ariketa (nahitaezkoa eta baztertzailea)

Erantzun anitzeko galdera-sorta bat idatziz erantzutea, erantzun horietako bakar bat
izanik zuzena, eta/edo izangaiek erantzuna garatu beharreko galdera-sorta bat, deialdi
honi erantsitako programaren edukian oinarritua. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

Ariketa hau egiteko 60 minutuko epea izango da.

Ariketa 0 puntutik 15 puntura bitarte baloratuko da, eta 7,5 puntu lortzen ez dituzten
hautagaiak kanporatu egingo dira.

Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzailea)

Kasu praktikoa bat edo gehiago izango ditu, izangaiek lanpostuaren eginkizunekin
zerikusia duten igeltsero-lanak betetzeko duten gaitasuna balioeste aldera.



Ariketa hori egiteko gehieneko denbora epaimahaiak zehaztuko du, proba hasi baino lehentxeago.

Ariketa 0 puntutik 15 puntura bitarte baloratuko da, eta 7,5 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatu egingo dira.

Hirugarren ariketa. (Borondatezkoa eta ez-baztertzailea)

Borondatezkoa da, eta ez-baztertzailea. Euskararen 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatutako beharko da, epaimahaiak emandako ildoan arabera eta horretarako Euskal Enplegu Publikoaren Legearen (11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa) 189.1 artikuluan ezarritakoaren arabera Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideei jarraikiz.

Ariketa hau ez dute egin beharko IVAPek igorritako 1. hizkuntza eskakizunaren (edo hortik gorakoa) ziurtagiria duten pertsonen edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 mailaren (edo goragokoa) pareko euskararen ezagutza egiaztatzeko titulu edo ziurtagiri ofizialetako bat dutenek. Titulu eta ziurtagiri horiek guztiak zerrendatuta daude apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. artikuluan eta hurrengoetan, eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan, eta hautagaiak eskatutako maila ariketa egin aurretik egiaztatu beharko dute, dagokion ziurtagiria Giza Baliabideen Zuzendaritzan aurkeztuta; izan ere, horrela egin ezean, ez da aplikatuko ariketaren salbuespena.

Hala ere, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea, baldin eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badago Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. Horretarako, parte-hartzaileek baimena emango diote espresuki Basauriko Udalari, erregistro horretan egiazta dezan.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek dagokien ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute.

IVAPek emandako 1. edo 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria duten pertsonen edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 mailaren pareko euskararen ezagutza egiaztatzeko titulu edo ziurtagiri ofizialetako bat dutenen kasuan, aurrerago adieraziko den puntuazioaren arabera baloratuko zaie eskakizun hori, baldin eta ariketa hau egin aurretik egiaztatu bada, aurreko paragrafoetan aurreikusitako moduan, bestela ez baita baloratuko.

Ariketa honetan 4,35 puntu emango zaizkio 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeari.

Gehieneko puntuazioa

Oposizio-fasean 30 puntu lortu ahal izango dira gehienez, Euskararen frogara alde batera utzita.

Lehiaketa-fasea. Gehienez 13,50 puntu.

Lehiaketa-fasean, eskabideak aurkezteko epean alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira. Gehienez hamahiru koma berrogeita hamar (13,50) puntu lortu ahal izango dira. Epaimahaiak merezimendu hauek baloratuko ditu:

- a) Karrera eta betetako postuak: Gehieneko puntuazioa 5,40 puntu.
 - Administrazio publikoan igeltsero-laguntzaile gisa benetan emandako zerbitzuak: 0,20 puntu zerbitzu-urte bakoitzeko edo sei hilabetetik gorako frakzio bakoitzeko (gehienez 1,80 puntu).
 - Administrazio publikoan igeltsero ofizial gisa benetan emandako zerbitzuak: 0,30 puntu zerbitzu-urte bakoitzeko edo sei hilabetetik gorako frakzio bakoitzeko (gehienez 3,60 puntu).
- b) Antzinasuna. Gehieneko puntuazioa 5,40 puntu.
 - Administrazio publikoetan lan egindako urte oso bakoitzeko: 0,33 puntu (gehienez 6 puntu).
- c) Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak: gehienez 2,70 puntu.



Soil-soilik 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako ikastaroak eta prestakuntza-jarduerak baloratuko dira, baldin eta ikastaro eta jarduera horiek lotura zuzena badute plazaren berezko zereginekin eta igeltsero ofizialaren lanpostua behar bezala betetzeko behar diren gaitasunak eta trebetasunak eskuratzearekin.

Parte hartzea behar bezala egiaztatu beharko da, dagokion diploma edo ziurtagiriaren bidez. Bertan, nahitaez agertu beharko dira ikastaroaren eskola-orduak eta hautagaiaren parte hartzea. Parte hartzea baremo honen arabera baloratuko da:

- 1 eta 10 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,025 puntu.
- 11 eta 30 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,05 puntu.
- 31 eta 50 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,10 puntu.
- 51 eta 70 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,25 puntu.
- 71 eta 90 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,33 puntu.
- 90 ordutik gorako iraupena duten ikastaroak: 0,75 puntu.

IVAPek, INAPek eta IEAPek antolatutako ikastaroez gain, unibertsitateek, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko ikastetxeek eta edozein zentro ofizialek (ministerioek, sailek, merkataritza-ganberek, elkargo ofizialek eta abarrek) eskusiboki antolatutakoak ere baloratuko dira, baldin eta ikastetxe horiek ematen badute bertaratze- edo irakaste-ziurtagiria.

Prestakuntza Erregelamenduari 23.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoetarako etengabeko prestakuntzako IV. Akordiotik eratorritako prestakuntza-ekintza guztiak ere baloratuko dira.

Halaber, alegatzen diren prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroek lehiatzen den lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten gaiak izan beharko dituzte.

Ikastaroetara joan izanaren ziurtagiria ez bada jasotzen ikastaroaren ordu-kopuru zehatza, ezin izango da baloratu, salbu eta izangaiak ikastaroaren iraupena egiaztatzen badu, ikastaroa eman zuen erakundeak emandako ziurtagiriaren edo egiaztagiaren bidez.

Ez dira baloratuko titulu akademiko ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten parte diren ikastaroak, irakasgaiak edo jarduerak.

1998ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako prestakuntzara mugatzeko arrazoiak dira, alde batetik, orduz geroztik Basauriko Udalaren egituraren eta antolaketaren izandako eraldaketa sakona, eta bestetik, araudiaren eta baliabide materialen eboluzioa eta teknologia eta lan-metodo berrien aplikazioa; horiek direla eta, zerbitzu berriak ematen dira orain, edo zerbitzuak emateko moduak eraldatu dira.

Zazpigarrena. — Epaimahaiaren proposamena

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen balorazioa amaitutakoan, epaimahaiak Udalaren webgunean argitaratuko du oposizio-lehiaketa gairak izangaien zerrenda, lehenetsun-hurrenkeran, eta puntuazio handiena lortu duenaren aldeko izendapen-proposamena egingo du.

Hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapen-hurrenkera zehazteko, lehiaketa-oposizio fasean lortutako kalifikazioak batuko dira.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako irizpideetan oinarritutako ebatziko dira puntuazio-berdinketak. Berdinketak jarraitzen badu, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioentzako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten Oinarri Orokorren 9.1 oinarrian ezarritakoaren arabera ebatziko da. Oinarri horiek Alkatetzaren uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretuaren bidez onartu ziren (2022ko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 141 zenbakia).



Behin-behineko zerrenda hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aztertu ondoren, epaimahaiak alkateari igorriko dio akta, puntuazio handiena lortu duenaren aldeko izendapena egin dezan. Akta horretan, puntuazio-hurrenkeran, deitutako plaza-kopurua gainditzen duten eta oposizio-fasea gaindituta duten hautagai guztiak agertu beharko dira.

Epaimahaiak proposatutako hautagai-kopurua ez da izango, inola ere, deitutako plaza-kopurua baino handiagoa. Edonola ere, Basauriko Udalean egon daitezkeen lanpostu hutsak —deitutakoaren antzekoak— aldi baterako betetzeko, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda aurkeztu beharko du epaimahaiak, lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran. Hemen osatutako poltsak lehentasuna izango du aurretik sortutako poltsen aurrean, horiek indarrean dirauten bitartean.

Epaimahaiak deialdia hutsik geratzen dela adierazi ahal izango du, baldin eta uste badu izangaietako bakar batek ez duela lanpostuko erantzukizunak betetzeko adinako mailarik lortzen probetan.

Zortzigarrena. — Dokumentuak aurkeztea

Izendatzeko proposatzen den pertsonak ez ditu agiri bidez justifikatu beharko lehenetik betetzen zuen plazan sartzean dagoeneko frogatutako baldintzak eta betekizunak, eta bakarrik aurkeztu beharko ditu administrazioaren esku ez dauden eta baloratu diren gainerako baldintza eta merezimenduen agiri originalak edo behar bezala konpultsatutak.

Bederatzigarrena. — Karrerako funtzionario izendatzea

Baldintzak aurreko oinarrian ezarritako moduan egiaztatu ondoren, epaimahaiak proposamena Basauriko Udaleko organo eskudunari helaraziko dio, karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egin dezan.

Alkate-presidenteak funtzionario izendatuko du epaimahaiak proposatutako hauta-gaia.

Hamargarrena. — Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortutako zalantzak eta gorabeherak ebazteko eta lehiaketa-oposizioa behar bezala antolatzeiko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi gabeko alderdi guztietan.

Hamaikagarrena. — Aurkaratzeak

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertzeiko errekurtsua aurkeztu ahal izango da, hila-beteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira, bi hilabeteko epean, biak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**I. ERANSKINA**

1. Eraikuntza-lanetan erabilitako materialak.
2. Eraikuntzan erabiltzen diren tresna, ekipo eta makinak.
3. Isolamenduak, iragazgaizteko lanak eta estalkiak.
4. Zangak egitea, eskuz eta makina erabilia.
5. Eskola-oholtzak.
6. Adreiluzko, harrizko eta blokezko hormak.
7. Trenkadak eraikitzea.
8. Paramentuen estaldurak: Azuleju-estaldurak, zarpiatuak, emokadurak eta luzituak.
9. Lurzoruen eta eskaileren estaldurak, motak eta egitea. (Baldosak, galtzada-harriak, lauzak, zolatak, asfaltoa).
10. Geometria eta aritmetika.
11. Planoak interpretatzea.
12. Aldamioak muntatzea.
13. Eraispenak eta errauspenak.
14. Zuinketak eta nibelak.
15. 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipamendua erabiltzeari buruzko laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
 - a) 10. artikulua. — Langileen betebeharrak.
 - b) I. eranskina. — Norbera babesteko ekipamenduen zerrenda adierazgarria eta ez zehatza.
 - c) III. eranskina. — Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea eska dezaketen jardueren eta jarduera-sektoreen zerrenda adierazgarria eta ez zehatza.
16. 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, laneko segurtasun- eta osasun-seinaleen gutxieneko xedapenei buruzkoa.
 - a) 4. artikulua. — Seinaleak erabiltzeko irizpideak.
 - b) I. eranskina. — Lantokiko segurtasun- eta osasun-seinaleei buruzko gutxieneko xedapen orokorrak.
 - c) II. eranskina. — Segurtasun-koloreak.
 - d) III. eranskina. — Panel itxurako seinaleak.